

24 ORDUKO LAGUNTZA ETA MATXUREN KONPONKETA ZERBITZUA ETXEAN

Iberdrolaren laguntza zerbitzu honen xedea zera da, bezeroen instalazio eta etxeetan gerta litezkeen matxurak konpontzeko eta zaharberritze-lanak egiteko zein haiei arreta emateko zerbitzu eta gremio-elkarte profesional ohikoenak beren eskura jartzea. Laguntza zerbitzu hau erabiltzeko 900 22 45 22 telefonora deitzea edo Iberdrolak xede horretarako eskainitako harremanetarako bideak baliatzea nahikoa izango da.

Hona hemen zerbitzu honek barne hartzen dituenak:

- ▶ Larrialdi egoerei 3 orduren buruan arreta egitea, gehienera jota. Zerbitzu hau hurrengo kasuetan emango da (ez da tarifa gehigarririk kobratuko larrialdiko zerbitzua emateagatik):
 - ▶ Iturgintza-lanak: bezero/titularraren instalazioetan urhornikuntza sareko hodi finkoak apurtuz gero.
 - ▶ Beirak: kanpoko beirate eta leihoak edo babestu gabeko instalazioak apurtuz gero.
 - ▶ Sarraiak: instalazioetako ate nagusia irekitzea.
 - ▶ Elektrizitatea: bezero/titularraren instalazio partikularretan matxurarik gertatuz gero.
- ▶ 24 orduko laguntza zerbitzuak eskura jartzea, energia zerbitzuari zein etxeke edo enpresako ohiko beste matxura batzuei lotutakokonponketa eta zaharberritzeetarako (iturgintza-lanak, beirak, sarraiak, klimatizazioa, argiztapena, etab.). Zerbitzua bermatuta eskaintzen da ondorengo arloetan:
 - ▶ Esku-hartze epeak.
 - ▶ Profesionalak ezarritako orduko prezioak: Iberdrolak laguntza anitzeko zerbitzu enpresarekin aurrez hitzartutako prezioen kontrola.
 - ▶ Egindako lanen 6 hilabeteko bermea (larrialdiak, matxurak eta zaharberritzeak).

ORIENTAZIO JURIDIKO ZERBITZUA

Iberdrolak bere bezeroen eskura jartzen duen zerbitzua da hau, 900 22 45 22 telefonora deituz edo enpresak xede horretarako eskainitako harremanetarako bideak baliatuz eskuragarri dagoena. Zerbitzu honen bidez, enpresak Espainiako Zuzenbidearen menpeko ordenamendu juridikoaren barne sor daitekeen edozein gaiaren inguruko telefono bidezko aholkularitza juridikoa ematen du.

Zerbitzu honek etenik gabe ematen du arreta astelehenetik ostiralera, 08:00etatik 17:00etara neguan eta 08:00etatik 15:00etara udan (ekainaren 15etik irailaren 15era). Sail honen ordutegiaren barruan jasotako eskaera orori deia hartutako egun berean egingo zaio arreta, bezeroa emandako harremanetarako telefonoetan eskuragarri baldin badago, eta aldez aurretik bezeroak beste egunen batean deitzeko eskaera egin ez badu. Zerbitzu honetan kontsultatutako gaiari buruzko ahozko aholku juridiko soila eskainiko da; ez da inolako kasuan gaiaren inguruko idatzizko txostenik igorriko.